

Ezetzaren Politika berriz ere...

GEXAN LANTZIRI



SEASKAK frantses Hezkuntz Ministeriarekin izenpetu zuen Hitzarmenaren ondotik, Euskal Kultur Erakundeak Uztaritzen finkatzearen

ondotik, Ziberoa Baionako Komertzial eta Industrial Ganbarari lotzearen ondotik, «Communauté des Communes» deitu zuten administral egitura bereziaren aipamenaren ondotik, bide seinaleak han-hemenka euskaraz ezartzen hastearen ondotik, bazi-rudien azkenean, frantses administrala, Parisekoa eta lekukoa, halako aterabidexka bati buruz abiatua zela, ezkerreko abertzale mugimendua, epe baten-tzat bederen, jabantzeko gisan.

Azken hilabete hauetan hartuak izan diren erabaki batzuek, frantsesen haizea norabidez aldatzen ari dela, erakustera damaigute. Hala nola, frantses barne ministrari berriak iparraldeari buruzko instituzional proiektuari uko egin dio, indar zapaltzaileen indar-berritzea hobetsi ondoan. Euskal Herriko iparraldearen desitxuraztea, Lurraren desjabetzea eta garestitzea erakarriko duten proiektu inmobiliarioak loratzen ari dira. Hauek denak, pixka bat murrizturik ere, egiten dituzte. Paueko Kontseilu Orokorrak ez dio Seaskari dirulaguntzarik gehiago emango. Ez eta AEK-ri. Ez eta «Gure Irratia»-ri ere. Baiona-Angelu-Miarritze hiri-elkarteak ez ditu bide seinaleak euskaraz eman nahi. Etabar...

Berriz ere beraz, ezetzaren politikak gaina hartzen ari du. Eta ondorioz, euskaltzaleak laster karrikamanifestaldietarako bidea hartu beharrean aurkituko dira.

«Nire etxe baitan»

IÑAKI ZABALETA URKIOLA



ASTEAZKEN

gauean amaitu zen Amatiñoren «Nire etxe baitan» programa. Gailurreko gonbidatua eraman zuen: Ardantza lehendakaria. Eta egia esanda, gustatu egin

zitzaidan programa. Amatiñok filiak eta fobia sutuak sortu/sortzen ditu. Nortasun nabarmeneko gizona baita. Nik neureak bezala, berak ere bere okereginak izango ditu, baina ezin ukatu balioak eta ongieginak. Kazetari modura, entzuten dakiena da eta eztabaidan sutsu eta gogor aritzen da, batzutan gehiegizko. Nor ez batzutan. Hor ibiltzen da beti boligrafoa eta papera txamarretan duela edozein informazio/ideia apuntatzeko prest. Lehengo eguneko telebista programan ahoa erabili zuen informazioa jasotzeko eta Ardantzak eman zion/zigun informazioa. Aspaldiko parte, «Nire etxe baitan» programako giro epelagatik edo, samur eta ongi aritu zen Ardantza. Ideiak argi eta modu erakargarriak esan zizkigun azken hauteskundeetako gorabeheretaz, berarekin konforme egon ala ez. Paktu Autonomikoa-aren auzia bi galderetan kokatu zuen zirt-zart: «Europaren egitura berriaren aurrean, arazoa ez da zer paktu autonomiko egin behar dugun estatuarekin, hori arazoaren zati bat baino ez da, galdera nagusia zera da zer estatu eduki behar dugun mende bukaera honetatik aurrera». Ardantzaren hitzak, gutxi gorabehera aipatuz, horietan izan ziren. Eta arrazoa du, hor dago gako. Ardantza lehendakariak majina bat kritika eta hitz gogor jaso omen du (esan zigun), neu ere ez naiz atzean geratu profesionalki horrela uste izan dudanean, baina bere ongieginetan neurri beretsua erabiliz, esan beharra dago, inork gutxi egin zezakeena egiteko gai izan dela: alderdi desberdineko gobernuak egin eta, sasi guztien gainetik, agintaldi osoa indarrean eta gauzak egin ez bete. Bakoi-tzari berea. Oraingoan beste frogak gogorra dauka gobernu hirukoitzarekin.

•DEIA

Ezkie jaio da Ljubljanan

Ezkie jaio da Ljubljanako plaza. Donostiako Konstituzio Enparantzan falta dena han agertu da, nonbait.

(...)

Euskal Herriak, oraingoz, autonomia sendo bat nahi du. Baina horrek erabat aseko duenik inork ez daki. Eta aurrerago jotzeko izan dezakeen gogoari hesia jarri nahi dio Estatuak. Hitzarmen hori lortu nahi luke Euskadirekin. Gaurko nahikundeak ezetik biharkoak ere lotu nahi ditu, noski. Hori ezinezkoa da, ordea, bizi den herri batek beti izango bait du bere etorkizuna berak erabakitzeko eskubide hotza ezetik gogo beroa ere.

Herri bakoitzaren nortasuna, kultura, hizkuntza eta burujabetza oinarritzen dituen Europatik ez bada eraikitzen, hondar mugikorren gainean eraikitako Europa erorkorra, eraskorra, haserrekorra eta ahula izango da. Eta horixe da gaurrengongo estatuek konprenitu nahi ez dutena.


M. ATXAGA / 1991-VI-28

•Diario de Navarra

Krisitik gerrara

Jugoslaviako integritatea defendatzen duten atzerritarrei beren jarrera desegokia dela aurreragira-

HEMEROTEKA



RICARDO Y NACHO / EL MUNDO / 91-VI-28

tzen zaienean, honako hau esanez justifikatzen dira, alegia, mugimendu separatista asko daudela Europa, Asia eta Afrikako herrialdeetan. Independentismoa Indian eta Sri Lankan edo Etiopian eta Somalian edo soviatar errepubliketan (adibide batzuk baino ez dira), munduko egonkortasunaren ikuspetik, gaitzesgarria izango balitz bezala oroitarazten da. Litekeena da egia zertxobait egotea beldur horretan. Baina kontutan izan behar da ere, mila eta hirurehun urteko historia politikoa, kulturala eta erlijiosoa duten herriak —Kroaziaren kasua esaterako— ezin daitezkeela parekatu erabat India, Sri Lanka, Etiopia eta abarreko integritatearen defendatzailetzat aipatzen direnekin. Europako segurtasuna eta kooperazioari buruz Helsinkiren konfe-

rentzia nazioarteko politikaren lormen garrantzitsua izan zen. Baina horrek ez du esan nahi bere deklarazioa ukiezina denik eta agiri haiek sinatzeko garaian aurrerakusi gabekoa zuzendu ezin daitezkenik.

LUKA BRAJNOVIC / 1991-VI-28

•LA VANGUARDIA

Jugoslaviako laborategia

Nazioarteko kontsentsua gabe, zaila da Esloveniak eta Kroaziak eskuratu berri duten independentzia sendotzea. Baina, era berean, nazioen komunitateak ezingo du luzaroan jaramonik egin gabe jarraitu, kroaziaren eta eslovenia-

ren nazio subiranotasun nahiei, modu demokratikoan eta bake-tsuaren adieraziak. Europako Elkar-tarearen eta Estatu Batuen argudioa da zatikatutako Jugoslaviak egonkortasunik eza handia sortuko lukeela lurraldean, eta herrialde baltikoetan ere independentziaren antzeko prozesuak azkartu egingo lituzkeela, hala nola, Georgian, Moldavian, Eslovakian eta segur-raski baita duela gutxi arte Ekialdeko Europaz ezaguna den beste tokietan ere.

LUIS FOIX / 1991-VI-28

•Diario 16

Tigretik jaisteko

Martxan dagoen tren batera igotzea oso arrisksua da, baina jaistea benetan hilgarria. Ekialdeko esaera bat da, tigre gainean ibiltzea posible dela, soilik segundu batzutan bada ere, baina jaistean irentsiak izango gara.

(...)

HBko jendearentzat: erraztasunak. Horiei kongresuan hitza kentzea Felix Ponsen ziztrinkeria horietako bat da. Kongresura ez joateagatik dirulaguntzak kentzea: martiri bihurtzen dituen umekeria, (beharko balituzte bezala?). Irantzea: denbora alferrikaltzea. Legez kontrako egitea: zoritxarrez batzuk pentsatzen ari diren astakeria politikoa. Legegintzaldi batean ez da tigretik jaisten. Goardia zibil baten ilobak idatzi du.

MARTIN PRIETO / 1991-VI-28

ZUZENDARIARI

Zuen Getaria ala guztiona?

Getariako Udaletik EAJ-PNVren ordezkariak zuzendu didazuen gutunari erantzutera noa. Honekin, neure aldetik, amaitutzat ematen dut eztabaida hau.

«Gure Getaria» zuen gutunaren izenburuak adierazten duenez, ez da edonor getariar. Bisitari soiltzat hartzen banauzue, ona litzateke argitzea sustraiz eta bihotzez bertakoa naizela, eta udal zergak ordaintzeak herritar egiten badu, nik ere eginkizun hori urtero betetzen dudala. Baina dirudie-nez gutxien atsegin dituzuenak nire iritziak dira, zuen hitzetan Getariarentzat kaltegarriak. Ez pentsa nire jarrera alderdi politiko jakin batek eragina denik, argi utzi nahi dut ez dudala in-teres politikorik, are gutxiago ekonomikorik. Herriari diodan atxikimenduak bultzatu dit salaketa hori egitera, getariar ez den beste

edonori bultza ziezaiokeen bezala, Antxon Narbaiza eibartarrak ederki frogatu digunez (ikus EGUNKARIA 91-IV-27).

Ez dakit nik idatzitakoak nire helburua ez dela Getaria «herri txkun eta euskalduna» izatea non eta zertan adierazten duen. Ez pentsa bertan egiten den guztia gaitzesten dudarik, esate baterako Getaria euskal udal elebakardun izendatzea go-raipagarritzat jotzen dut. «Polit» adjetiboari dago-kionez, hiztegiak zehazta-pen zabalegia ematen bide du, zeren zuen eta nire def-inizioak ez dira itxuraz ber-dinak, eta argi dago bakoi-tzak, bere begientzat, herri polit bat nahi duela.

Hauteskundeetan gehiengo lortzeak zuen erabakiak onartzen ez ditugun guztiori «bide okerretik», «salbatzaile», «dema-gogo», «sasiologista» eta antzerako irainak botatzeko, edo eta herritar, bisitari zein sonitarteko ongileak gaiz-kileetatik bereizteko esku-

bidea ematen baldin badi-zue, ez dut uste garai batetik hona aurrerapen handirik egin dugunik.

EDURNE ALEGRIA
AIERDI
URRUÑA

Higiene apur baten defentsan

Ez dut ohiturarik prent-sako Zuzendariari gutunak bidaltzeko; halere, gaur es-treinatuko naiz. Ez bereziki J. Ganboiko egunkariokari bidalitakoak nire aipamen pertsonalik dakarrelako, baina batzutan norberaren alderdikidetzak eta partai-detzak eraginik badu, eta esan nahi diot EAK ere egin duela okerrik, noski, baina ez duela Ganboa jaunak hauenganako dituen ipur-tzulokeriak euskaldunen EGUNKARIA-n zertan sar-tu, hau ez baita inoren ko-mun pertsonala.

MARTIN UGALDE
HONDARRIBIA

PERTSONAIA



Emilio Barbera

Ikasleari enbido eta irakasleei hordago diru kontuen trapitxeoan mus ematea nahiago Barbera jauna zure baraja nahastu samarra dago gure mahaia utzi beharko zenukeelakoan nago guk estimatzen zaitugu baina Valencian gehixeago.

JON SARASUA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendari:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIAN ETXEZAHARRETA

IÑAKI URIA

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxe: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxe: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxe: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxe: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxe: 423 94 60

Lapuri / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxe: 59 25 75 11